

**UPV/EHUko IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO-
DEIALDIA (2023) I. ETA II. MODALITATEAK**
**Onartutako eta baztertutako eskabideen behin-behineko
zerrendarena hutsen zuzenketa**

2023ko irailaren 14an argitaratu zen onartutako eta baztertutako eskabideen behin-behineko zerrenda.

UPV/EHUko IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO-DEIALDIA 2023

Hori argitaratu ondoren eta interesdunek kontsulta egin ondoren ikusi da, akats material batengatik, bi eskaera bidegabeki baztertu zirela eta ezin zirela zuzendu. Beraz, ofizioz zuzentzen dira **PIF 23/309 eta PIF 23/310** eskaerak (IKUSI ZUZENKETEN ERANSKINA).

Zerrendatutako pertsonak 10 egun balioduneko epea izango dute, 2023ko **urriaren 3tik 17ra, biak barne, adierazitako akatsak zuzentzeko** edo **nahi dituzten alegazioak aurkezteko**. Epe hori igaro ondoren, zuzendu ez diren eskabideak atzera egindakotzat joko dira edo, merezimenduak badira, ez dira baloratuko.

Onartu eta baloratutako merezimenduak ere egiaztatu ahal izango dituzte, eta, okerrak badira, adierazitako hutsak zuzendu edo nahi dituzten alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte, aipatutako 10 egun balioduneko epean.

Deialdiaren oinarrien arabera, **eskabideak aurkezteko epearen barruan aurkeztutako merezimenduak onartuko dira bakarrik.**

Alegaziorik aurkezten ez bada, ulertuko da hautagaiak onartzen dituela meritua, eta ez da beharrezkoa izango izapide gehigarririk egitea.

Zuzenketak eta alegazioak deialdiaren 6. oinarrian azaldutako bide berberak erabiliz aurkeztu beharko dira.

Leioan, 2023ko urriaren 2an

IKERKETA-DEIALDIEN ATALA
Ikerketako Errektoreordetza